

Donostian, bildu dira: Ignacio Maria Etxaide jauna, buru, Lekuona, Irigaray, Arrue ta Villasante jaun euskaltzainak. Etxaniz, Zugasti, San Martin, Loidi, Labayen eta Irigoyen jaun urgazleak. Mitxelena jaunak ezin etorria adierazo dau.

Aurreko batzarreko agiria irakurri da eta ontzat artu da.

Bizkaiko Ahorro Kaxearen karta bat irakurri da. Gure eskabideari erantzunik amairu milla peseta emotea erabagi dabe Bizkaiko bertsolarien laugarren txapelketarako. Eskerrak emon bekiez.

Lizardi-ren gorazarrezko poesia-sariketea erabagi bear eban juraduak bere eretxia ekarri dau. Erkiaga jaunak ezta parte artu juraduan. Lenengo saria Ormaetxea Nikola jaunaren "Lau urtaroak nere begietan" titulua dauen lanak irabazi dau. Bigarrena Jose Maria Aranalde jaunaren "Len eta orain" lanak. Eta irugarrena Lukax Dorronsoro ta Ceberio jaunaren "Kaiolatik iges" lanak. Lenengo sariaren meritua onela ikusten ditu juraduak: "..., bere baserri-lirika txukunez, bere izkuntzaren eta itz-neurtuen erreztasunez, lanaren batasunez, eta nun-naitik darion pakezko izatez, itz batean, olerki guztiaren benetako lizarditasunez." Beste bienak bardin.

Datorren domekan, Maiatzaren 28-a, partidu bear dira sariak sariak Tolosan. Bertako Ayuntamentuak poesia- sariak aundiago egin ditu milla peseta emonik. Beraz, sariak oneik izango dira: 1) 2.500 peseta. 2) 1.000 peseta. 3) 500 peseta. Prestau direan jaien gainean berba egin da. Euskaltzaindiak batzar agiriko bat egingo dau sariak partietako.

Irigoyen jaunak diño Euskaltzaindiak Bizkaiko neska-mutilentzat iminita daukan euskal-sariketarako izenak emoteko epea amaitu dala eta berrogetaamar izen inguru artu direala. Esamiñak igaz legez Bilboko Jesuiten Kolejoan egin leitekezala Bagillaren 15-eko arratsaldean diño. Egin beitez.

Nafarroako "Euskeraren Aldeko Salla"-ren programa bat irakurri da. Bagillaren 1-ean, bestaberri egunez, Irurita-n egingo dana azalduten dau. Eremu aretako bertsolarien txapelketea be egingo da.

Arrue jaunak diño Donostian Irailean urtero egiten dan euskalastean Euskaltzaleen Biltzarra sartu leitekeala. Irakaskintzea artu leiteke gai nagusitzat. Ontzat artu da asmoa eta egin beitez alegiñak aurrera aterateko.

Jaun berak diño "Centro de Atracción y Turismo"-koak San Tomasetan urtero bertsolarien jaien bat prestau daigun gura leukiela.

Dabiltzan euskal-erradioen gainean berbaz ekin da. Asko geratu dira Radio Arrate-k egiten dituen alegin bikaiñak eta bertako zuzendari dan Pedro Gorostidi jaunari eskerrak emotea erabagi da.

Beste barik oi dan otoitzagaz amaitu da batzarra.